

Myth Buster

Azurmendiren obra sublimea da ederra baino gehiago. Irakurlea gainezkatzen du handiaren handiz eta kosta egiten da osotasun-irudia egiten ere. Eragiten duena ez da plazera, ezpada beldurra, baina beldur bat erakargarria. Horregatik da ariketa bitxia hari buruz hitz bi egitea, hitz bi egiteak juzgu orokorrak eskatzen dituelako. Nik ez daukat Azurmendiren obraren inguruko juzgu orokorrik –ezta Azurmendi gizonaren ingurukorik ere–, honakoa baizik: sublimea da.

Publikoki esan dut lehenago ere Euskal Herriko egungo komunistok nahitaez erreparatu beharko diegula, lehenago ala beranduago, 70eko hamarkadan Azurmendik marxismoaz eta literaturaz, klaseaz eta nazioaz idatzi zituenei. Ez gara euskal intelektual komunistak zinez izango lan horiei kritikoki kontu egin arte. Tamalez, eginkizun horrek fundamentuz egiteko behar duen espaziorik ere ez dago hemen. Orduan zer?

Historia, arraza, nazioa esku artean darabildala, gogoratu naiz zer gusatzzen zaidan gehien Azurmendirengandik: testu sakratuen exegesi historiko-kritikoa. Jakinekoa denez, seminarista izandakoa zen Azurmendi, eta ez alferrik. Baruch Spinozaren *Tractatus Theologico-Politicus*-etik datorren tradizio intelektualaren ildoan, ustez Jainkoaren hitzaren eroaleak diren testuak gainontzeko testu lurtar guztien mailan analizatzen tematu zen Joxe Azurmendi. Ez naiz testu errebelatuez ari, sakratuez baizik: garai bakoitzak izaten ditu bere jainkoak eta bere *Manual devotionezcoa*-k.

Horren adibidea da Renanen *Qu'est-ce qu'une nation?* diskurtsoa, Frantziako mitologia errepublikarrak nazioaren kontzeptu liberalaren sortzailatzat sakralizatua. Nazioaren kontzeptu liberala –politikoa, boluntarista, subjektibista eta nahi diren izenondo panpox guztiak– Frantziako Estatu postiraultzailearen printzipio egituratzailatzat jo ohi

da erretolika sasi-intelektualean, eta nazioaren kontzeptu erromantikoa –prepolitikoa, etnizista, objektibista eta nahi diren izenondo gutxiesgarri guztiak– ei du kontrarioa, alegia, kontzeptu alemana. Marko teoriko hori ezarrita, juzgu politikoen diskurtso-makineria olioztatua jartzen da martxan, nazio-proiektu batzuk aurrerabide historikoaren eramaile egiten dituen eta besteek ia-ia holokaustoa beste bukaera posiblerik ez dutela dioena. Azurmendi exegeta kritikoa zolia zen, ordea; eta, batez ere, irakurria. Eta erakutsi zuen Renani dagokiola, Gobineauri adina, «arraza ariarren eta semiten elkarrezintasunaren doktrina fatalaren» aita pontekotza; edo nazioaren funtsa «eguneroko plebiszitua» delako ideia ez dela printzipio filosofiko abstraktua, baizik eta Frantziak 1871n Alsazia eta Lorena –kulturaliki alemanak– galdu ondoren intelektual frantsesek *ad hoc* ondutako kontzeptua, zentzu geoestrategikoa duena, ez filosofikoa.

Askok egin izan du sozialismoaren aurka *actually existing socialism* delakoaren mamua astinduta; inor gutxi jarri du, ordea, liberalismoaren ideia abstraktua *actually existing liberalism* badaezpada koaren ispiluan. Azurmendik bai. Azurmendik kultura intelektualeko topikoen aurka egiten zituen eraso exegetiko itxuraz grinagabe horien atzean, justizia gosea eta amorrua zeuden. *Berez denaren* diskurtsoa izan nahi lukeenaren hitza isilarazteko erabiltzen da maizenik. Horregatik, Azurmendik, bere metodoa baliatuta, izan nahi luketenentzako borroka-erremintak sortu zituen.

Estatu Batuetan, zientzia-dibulgaziokoa bide zen telebista-programa bat bazegoen, *MythBusters*. Programa horretan, Michiganeko eta New Yorkeko bi gizonkotek herri-kulturan bolo-bolo zebiltzan kondairak desmuntatzen zituzten. Esaterako, frogatu zuten labezomorroak ez liratekeela gerra nuklear batetik bizirik aterako eta paper zati bati zazpi toles baino gehiago ematea posible dela. Gure Myth Busterrak ez zuen efektu espezialik erabiltzen, analisi historiko-kritikoa baizik, eta horrez gain Zegaman jaio zen. Eta kultura akademikoan bolo-bolo dabiltzan mito intelektualak botatzen irakatsi zigun.